

## Mitoa

moa bezala, badago ere juduen edo mahometarren mistizismoa: \*Pseudo-Dionisio-ren idatzien ondotik, V. mendean agertua. "Mistizismo" hitzak, bestalde, adieraz dezake ere aparteko erlijio-sistema edo teologi tanke-ra: Jainkoaren erabateko gaindikotasuna ikusirik eta Jainkoak berak funtzio intelektual guztiak gainditzen dituen gero, Harekin elkartzeko bide bakarra bezala, "agnostia" edo "ezetza"ren bidea --via negationis-- proposatzen du delako mistizismoak. Positiboki, Jainkoarekin osoki bat egiteko ahalmena estasian bakarrik jartzen du, hots.

## Mitoa

Historia beltza du mitoak Mendebaldeko historian: mende luzetan alde guztietatik beltzua eta iraindua ibili da, XIX. mendetik honutza, filosofia berak, antropologiak, hizkuntzalaritzak eta teologiak ere berreskuratu eta zurikatu duten arte. Badu, hala ere, zenbait konnotazio negatibo oraindik ere.

Beste hainbat ezagukeraren "anti-" bezala ulertu izan da mitoa; eta beti ukakorrena jokatu behar izan du. Filosofiaren arazoimenak ukatu zuen aurrenik, Sokrate eta Aristotele-rengandik hasita, irudimen hutsaren fruitu baillitza kritikatu eta baztertu; Teologiak ukatu zuen gero, egiazko errebelazioaren izenean, gezurrezko erlijio-hondakin bezala; historiak ere ukatu egin zuen mitoa, dokumentuzko egiaztapenaren izenean, gizarte primitiboek asmatutako ipuin eta alegia bezala; zientzia esperimentalek ukatu dute, azkenik, datuen esperimentalismoaren eta kontzeptu matematikoen izenean, hizkera sinboliko eta izadiaren adiera magiko bezala.

Jatorriz, Antzinatean "jazoriko" irudimenezko historioen kontakizunak dira mitoak, non jainkoek eta heroiek hartzen bait dute parte. Gero, bereziki Platon-en bidez, zuzenean azal ezin daitezkeen errealitate filosofikoak adierazteko alegoriak dira mitoak (ezagunena, agian, Haitzuloaren mitoa, Platon-ena).

Filosofia modernoan J.G. \*Herder-en bidez sartu da mitoareneko azterketa.

\*Etnologiaren eraginez batez ere, mitoak bestelako esangura hartu du: hots, gizarte edo herri jakin bateko munduari eta bizitzari buruz daukan ikuskera grafiko eta intuiziozkoa. Kolektibitateak barnekatuak ditu hainbat sinbolo eta irudi, tradizioz jasoak, eta kontzientzipean sartuak, bere sorrera, historia, zenbait ohitura eta instituzio edota inguruko mundua azaltzeko modukoak.

Naturalak nahiz kulturalak izan daitezke honelako mitoak, kontutan edukiz izadiari

buruzkoak ala kolektibitatearen kultur tradizioari buruzkoak diren. Izadiko indarrak nahiz kultur instituzioak pertsonaldu egiten dira gehienetan.

Mitoez da erabat irudipenezkoa, eta bai irudizkoa, irudiz baliatzen bait da, bestela adierazi ezin duen errealitateaz aldatzeko.

Balio "etiologiko" du mitoak: hau da, gizartearen edo herriaren esperientzia benetakoa --historikoa-- azaltzeko horren sorrera edo kausara jotzen da. Baina kausa hori, denbora historikotik kanpo, "denbora mitiko"an hain zuzen, jartzen da, historia osoarentzat eredu bezala. Mugagabea eta mugimendurik gabea da denbora mitiko hori; baina ez dago betierearekin nahasterik. Esperientzia sozialaren azalbidea eta jokabidearen paradigma izan nahi du mitoak. Ez--historikoa da, beraz, mitoa; baina ez anti-historikoa.

Mitoez du autore jakinik. Herria bera da mitoareneko jabea: "Herrien ametsak" bezala definitu izan dira mitoak. Herriaren mitologiak bere filosofia erlijiozkoa, morala eta soziala laburbiltzen ditu nolabait.

Hizkera bat da mitoa: sinboloz, irudiz eta alegoriak egina. Horrela ulertzen du Herder-ek. Baina bada ezagukera eta ulerkera bat ere: hots, errealitatea ezagutzeko modu bat, ezagutza razionala, zientifikoa eta tekniko ez bezalako, eta gauzen funtsezko zentzua bilatzen duena. Hala ere, primitiboen burubidean ezagutza fenomenologikoa eta ezagutza mitologikoa bereiztezinak dira sarritan: hau da, mitoareneko irudizko eta sinbolozko hizkera ez da azaldu nahi den kontzeptuaren gaineko eta kanpoko janzkera hutsa; bata eta bestea errealitate berberetatik eta banaezinekotzat hartzen ditu gizaki primitiboak.

Baina mitoa ez da gizarte primitiboarena bakarrik. Ezagutza razional eta zientifikoa ez du mitoa ukatzen berez, eta bai hori kritikatu, horren mamia eta janzkera sinbolikoa eta alegorikoa bereiziz. Mito kritikoa honi "hautsia" edo "irekia" deritza. Horrela, bere benetako balioan berreturik gelditzen da, arazoimenezko kritikaren ondoren.

Horixe da, hain zuzen, desmitologizazioa.

Paulo Agirrebaltzategi

## Mitologia

Edozein erlijio, etnia, kultura edo herriko ipuin, alegia eta mito berezien kopurua deitzen da erlijio, etnia, kultura edo